



# WILLKOMMEN INS BASKENLAND

**ONGI ETORRI EUSKAL HERRIRA**

Alemana eta Euskara

Edurne Azkue Urrestilla  
Elgoibarko Institutua

## Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

<b>Inplikaturiko ikasgaiak:</b> Alemana, Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Historia
<b>Gaia:</b> Willkommen ins Baskenland
<b>Maila:</b> Batxilergoko 1. maila
<b>Saio-kopurua:</b> 8 ordu aurre-prestakuntza gelan ikasle alemanen astebeteko egonaldia martxan jartzeko.
<b>Ikas-egoeraren markoa:</b> <b>A. Testuingurua:</b> Elgoibarko Institutuak 10 urte baino gehiago daramatza Alemaniako <i>Karlsruhe</i> hiriko <i>Lessing Gymnasium</i> ikastetxearekin trukea egiten. Truke horretan Alemana ikasgaia duten Batxilergoko lehen mailako ikasleek eta Alemanian espainiera ikasten ari direnek hartzen dute parte. Helburua ikastetxean ikasitako hizkuntza-gaitasun apurra ingurugiro natural batean praktikara eramatea da. Alemaniarrek ez dute Euskal Herria gehiegi ezagutzen, azaleko erreferentzia batzuk bakarrik dituzte, eta Espainiara datozelakoan, udako turismo-jomuga batera, abiatzen dute bidaia. Ikuspegi hori eraldatzeko, haiek etorri aurretik gure ikasleak talde-lanean arituko dira, horrela, euskal kulturaren murgiltzeaz gain, kalitatezko proiektu kolektibo bat osatzeko. Proiektu horretan Euskal Herriko hizkuntza eta kultura-aniztasuna kontuan izanda, gure gonbidatuei hemengo kultura-ondasunaren ikuspegi orokorra azalduko diete. Ikasketa-prozesu horretan, Elgoibarko ikasleek alde aurretik duten ezagutza eguneratzeaz gain, ezagutza berriak ere ikasiko dituzte. Era horretara, trukearen helburu nagusia den alderdi komunikatiboa garatzeaz gain, identitate- eta kultura-aniztasuna ere errespetatzen eta lantzen dira. Hori gutxi ez, eta euskal curriculumaren ikuspegi ñimiño bat jasota itzuliko dira <i>Karlsruhetarrak</i> euren egonalditik. <b>B. Abiapuntua:</b> Gure ikasleek hemengo txoko interesgarriak, ondare kulturala eta artistikoa ezagutzera emateko gomendioak egin eta aurkeztuko dituzte, gure kultura babesteko kontzientzia indartzeko helburuarekin, hala euren artean nola alemaniarren artean. <b>C. Azken ekoizpena:</b> Ikasleek, taldeka, gure herrialdeari buruzko ahozko nahiz idatzizko aurkezpenak prestatuko dituzte, baliagarriak izan daitezkeen ideia eta gomendioekin. Gero, alemaniarrek lan horri argazkiak erantsiko dizkiete eta <i>booklet</i> edo turismo-liburuxka bat osatuko dute hemen igarotako astean ikasitakoarekin.

**Proposamenaren justifikazioa:****A. Proposamenaren xedea:**

Ikas-egoera honen bidez, ikasleek gure herrialdea eta kultura hobeto ezagutzeko aukera izango dute eta, aldi berean, atzerriko ikasleen interesa pizten saiatuko dira. Gainera, atzeritar bati sortu ahal zaizkion galderak erantzuteko gaitasuna garatuko dute.

**B. Argudiaketa kurrikularra:**

Ikas-egoera honek honako konpetentzia hauei egiten die ekarpena: hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia eleanitza, herritartasunerako konpetentzia, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, konpetentzia digitala, kultura-kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia.

**C. Helburu didaktikoak:**

- Idatzizko azalpen testuak ulertzea.
- Euskal Herriarekin lotutako elkarrizketa errazetan aktiboki parte hartzea, informazioa eta iritzia trukatzuz eta aholkua emanez.
- Ahozko azalpen testu errazak zuzen eta koherentziaz azaltzea.
- Deskribapen-testu erraza autonomiaz idaztea, emandako ereduari erreparatuz, koherentziaz eta zuzen, eskatutako jardueri erantzuteko.
- Kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea.
- Komunikaziorako baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz, gero eta autonomia handiagoz, hausnartzea.

**JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA ETA EBALUAZIO-ADIERAZLEAK (IRAKASLEARENTZAT)**

**A. Hasierako fasea: ALEMANA eta EUSKARA**

Jarduerak		Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
EUSKARAZ	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer dakigu euskaraz? Euskal Herriko historiaz? Euskal kulturaz? Zer ikasi behar dugu?</li> <li>- Lan-plana ardaztea, solasaldia egin galderekin eta ekarpenekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-errealitatearen eta kultura-aniztasunaren ezaugarriak identifikatzen ditu.</li> <li>- Modu aktibo eta egokian parte hartzen du ahozko elkarreragin informalean, besteen iritziak entzunez eta bereak emanez inolako diskriminazio-erabilerarik gabe.</li> </ul>	Ikaskuntzaren egunerokoa

**B. Garapen-fasea**

Jarduerak		Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
EUSKARAZ	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jakintza berrien azalpena: toki edo pertsona baten deskribapenaren formatua, egitura eta hiztegia aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu idatzietako informazioa ulertzen eta interpretatzen du.</li> <li>- Deskribapen-testuen egitura eta baliabide linguistikoak identifikatzen ditu eta testuari kohesioa emateko, deskribapena egiteko beharrezkoak diren baliabide linguistikoak egoki erabiltzen ditu.</li> <li>- Talde-lanean parte hartzen du.</li> </ul>	Ikaskuntzaren egunerokoa eta ikasleen elkarrizketak
ALEMANEZ	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Toki zein pertsona baten deskripzio-testuak eta historia-testuak lantzea.</li> <li>- Emandako testu eta web orriak aztertu eta azalpena nola egin azaldu.</li> <li>- Aukeratu eta baztertu zer informazio-mota bilatu behar duten, testu horiek euskaraz badaude ondoren antzekoak alemanez lantzeko eta aurkezpenak prestatzen hasteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu idatzietako informazioa ulertzen eta interpretatzen du.</li> <li>- Deskripzio-testuen egitura eta baliabide linguistikoak identifikatzen ditu.</li> <li>- Ideia nagusi batzuk eta informazio garrantzitsua identifikatzen ditu, euskarri bisual eta idatziaren laguntzaz.</li> <li>- Modu aktiboan eta errespetuz entzuten du, eta galdera egokiak egiten ditu.</li> <li>- Gero eta autonomia handiagoz bilatu eta hautatzen du Euskal Herriko kulturaren inguruko informazioa.</li> <li>- Euskal Herriko kulturaren inguruko informazioa modu logikoan antolatzen du eta testua egituratzen du, testu-antolatzaile</li> </ul>	Ikaskuntzaren egunerokoa

		<p>egokienak erabiliz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana planifikatu, informazioa trukatu, parte hartu, bere ikuspuntu bat aurkeztu, gehiago edo gutxiago argudiatuz, eta ideiak nahiz informazioa trukatzeko.</li> <li>- Beste hizkuntzei buruz dakiena erabiltzen du ulermena hobetzeko.</li> <li>- Gai ezagunei buruzko ahozko testu argiak eta ongi egituratuak sortzen ditu, aurrez landuak.</li> <li>- Ahozko eta idatzizko testuaren edukia planifikatzen du eta bere hitzez adierazten du gero eta autonomia handiagoz.</li> <li>- Hizketako txanda eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.</li> <li>- Lan bat egiteko orduan, zalantzak argitzeko tresnak erabiltzen ditu: hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...</li> <li>- Inoren ekarpenak balioetsi, eta kontuan hartzen ditu.</li> <li>- Atzerriko hizkuntza erabiltzen du proiektutan laguntzeko, ahozko nahiz idatzizko harremanetan teknologia berriak erabiliz.</li> <li>- Atzerriko hizkuntza erabiltzen du ikasteko tresnatzat, eta denetariko informazio-iturriak eskuratzeko bidetzat.</li> <li>- Atzerriko hizkuntza ikasi, eta hartan komunikatzeko interesa dauka.</li> <li>- Estereotipo baztertzailerik saihesten du.</li> </ul>	
--	--	--	--



### C. Azken fasea

Jarduerak		Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<b>ALEMANEZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeetan, idatzitako testuak digitalizatu.</li> <li>- Aurkezpena entseatu.</li> <li>- Taldeka, lanak aurkeztu.</li> <li>- Ebaluazioa / autoebaluazioa / heteroebaluazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Idatzizko testuak sortzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.</li> <li>- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzen ditu ahozko lanetan, ganoraz.</li> <li>- Ebaluazio- eta zuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu norberaren eta inoren ahozko lanak hobetzeko.</li> <li>- IKTak erabiltzen ditu informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa zabaldu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.</li> <li>- Komunikazioa bermatzeko bezain zuzen, arin eta ahoskera nahiz intonazio ulergarri hitz egiten du, eta kontuan hartzen ditu</li> </ul>	<p>Ikaskuntzaren egunerokoa</p> <p>Ikaskuntzaren egunerokoa</p> <p>Ikasleek sortutako ahozko ekoizpenak</p>

		<p>egokitasuna, kortesia-arauak, doinua, keinuak eta gorputzaren jarrera.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ortografia, puntuazioa, sintaxia, esamoldeak, lexikoa eta testu-kohesioa egoki erabiltzen ditu.</li> <li>- Emandako eredu batzuen antzeko ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentuazioa erabiltzen du, modu argi eta ulergarrian.</li> </ul>	<p>(errubrikak)</p> <p>Ebaluazio-errubrikak</p> <p>Power Pointerako errubrikak</p>
--	--	--	--

## **A. HASIERAKO FASEA: EUSKARAZ**

### **ZER DAKIGU? ZER IKASI BEHAR DUGU?**

Urtero legez, trukeko ikasleak datozkigu gurera eta ez dute Euskal Herria ezagutzen. Hori dela eta, aste horretarako zeregin batzuk prestatu behar dituzue aldezturik.

Lehenik eta behin, azaldu behar dute gure herrian espainieraz gain, euskara ere hitz egiten dela, eta biak direla hizkuntza ofizialak; jende asko euskara hutsean bizi dela; zuetako askoren ama-hizkuntza euskara dela eta jende askoren utzikeriagatik galtzeko geroz eta arrisku handiagoan dagoela. Aste horretan, beraz, erdara praktikatzea bada ere helburua, adierazi behar zaie euskaraz ere zerbait ikasi behar dutela, hemengo errealitatea hori baita eta hemengo errealitatea ezagutzera etorri baitira. Gauzak horrela, hasteko, diosala batzuk eta bizpahiru esaldiren bitartez euren burua euskaraz aurkezten irakatsiko diezue.

Goikoa argi utzi ondoren, bisita ditzakegun tokiak gomendatu, toki horiei buruz hitz egin, bertako pertsonaia ospetsuez nahiz historiaz hitz egin, idatzizko testu digitalak osatu eta, azkenik, bisitarien aurrean ahoz aurkeztuko dituzue.

Horretarako, adostu labur-labur, ahoz, galdera hauen erantzun posibleak:

- Zer da toki eta pertsona baten aurkezpena?
- Zer informazio aurki edo eman dezakegu horrelako aurkezpenetan? Eta nola antolatuta, batez ere jakinda alemanez arituko garela eta atzerritarrak direla informazioa jasoko dutenak?

## **B. GARAPEN- FASEA. EUSKARAZ ETA ALEMANEZ**

### **Ikas-egoera honetan hau ikasiko dugu:**

- Toki edo pertsona baten deskripzio-testuak nolakoak diren hizkuntza ezberdinetan.
- Euskal Herriko historiako pasarte interesgarriak ulertzen eta deskribatzen.
- Taldean lan egiten.
- Deskripzio idatziak sortzen modu digitalean.
- Ahozko aurkezpenak egiten.
- Hizkuntza batean ikasten duguna besteetan erabiltzen.
- Hizkuntzari buruzko hausnarketa egiten.

### **Jarduera hauek egingo ditugu:**

- Taldeka, testuen egiturak aztertu eta konparatu, adjektiboen erabilera, ideien lotura...
- Aurkezpena idatzi eta baliabide digital baten bidez sortu.
- Tokiak eta historiako pasarteak ahoz aurkeztu.

### **Nola ebaluatuko da egindako lana?**

- Taldean egindako lana, auto-ebaluazioaren bidez.
- Parte-hartzea, elkarren arteko ebaluazioaren bidez.
- Aurkezpen digitalaren ebaluazioa.
- Ahozko aurkezpenaren ebaluazioa.

**Zertarako?** Euskal Herriari buruz ezagutza gehiago barnerratzeko eta ondoren ikasitakoa alemanez transferitzeko.

## **JAKINTZA BERRIEN AZALPENEA. TOKI EDO PERTSONA BATEN DESKRIBAPENAREN FORMATUA AZTERTZEN**

Deskribapen-aurkezpenak egiteko askotariko formatuak aztertuko ditugu.

### **EIN ORT BESCHREIBEN: LEKU BATEN DESKRIBAPENA**

*Es ist wichtig viele Adjektive zu benutzen, das wird den Text verbessern und attraktiver machen.*

Garrantzitsua da adjektibo asko erabiltzea, idatzitakoa erakargarriagoa egiteko.

Ze informazio topa dezakegu paragrafo bakoitzean?

*Welche Informationen finden wir in jedem Abschnitt?*

Proposamena:

*ABSCHNITT 1: Die Stadt beschreiben. Wo liegt und wie groß sie ist .*

*ABSCHNITT 2: Was kann man dort machen.*

*ABSCHNITT 3: Vorschläge. Wann kann man die Stadt besuchen.*

Lehen paragrafoa: Hiria/herria deskribatu. Kokapena, neurria.

Bigarren paragrafoa: Zer egin daitekeen bertan.

Hirugarren paragrafoa: Zer bisitatu daitekeen.

Bizpahiru deskripzio-testu xumetatik abiatuta, aztertu taldeka erabiltzen den hiztegia.

### **NIRE HERRIA, DEBA**

DEBA Gipuzkoako kostaldean dago. Herri txikia da, baina oso polita. Inguruan Mutriku, Elgoibar edo Mendaro daude. Gure herriko gauzarik politena ingurua da: itsasoa, hondartzak eta mendiak. Horregatik etortzen da jende asko udan egun batzuk pasatzera. Baina herri-barrua ere oso polita da: kale zaharrak, udaletxeko plaza eta plaza zaharra edo alameda itsasoaren ondoan...

Debako monumenturik inportanteenetakoa eliza da. XVI. mendekoa da eta oso ederra eta dotorea da, batez ere bere klaustroa. Txikia dela esan dut, baina baditu auzo eta txoko desberdinak: Itziar (orain auzo-udal bilakatua), Itsaspe, Santa Katalina... zein baino zein politagoak.

Herrian ez zaigu ia ezer falta: liburutegia daukagu, kultur etxea, gaztetxea, zahar-etxea ere bai. Zinema itxi egin zuten, tamalez, baina udan filmak aire librean ikus daitezke eta neguan kultura-etxean ere igandero botatzen dituzte filmak.

Garraioa ezin hobea da. Trenetz lotua dago herria Bilbo eta Donostiarekin eta, trenaz gain, autobus ugari ditugu inguruko herrietara.

Debarrak oso gutxi gara. Erroldan 5.000 biztanle inguru gara, auzoak barne hartuta. Neguan oso bizona gutxi dago, turista guztiek alde egin dutelako eta herrikoak bakarrik gelditzen gara.

Gazteak, 16vurtetik gorakoak batez ere, Elgoibarrera joaten dira ikastera edo Zumaia nahiz Mutrikura. Herrian bertan ez dago enpresarik, baina Itziarko industrialdean tailer andana dago eta jende askok bertan egiten du lan.

### **FRANKFURT**

*Meine Stadt*

*Ich wohne in Frankfurt am Main. Die Stadt hat über 700 000 Einwohner, sie ist die fünftgrößte Stadt Deutschlands.*

*Mir gefällt die Stadt, weil sie so international ist. Hier leben Menschen aus vielen Kulturen. Um den Hauptbahnhof herum gibt es viele internationale Lebensmittelgeschäfte und Restaurants.*

*Frankfurt ist eine moderne Stadt mit vielen Hochhäusern, aber es gibt auch eine schöne Altstadt mit gemütlichen Kneipen. Dort kann man Apfelwein trinken und Grüne Soße essen. Das Frankfurter Nationalgericht besteht aus Kräutern, Joghurt und anderen Zutaten.*

*In Frankfurt steht auch das Goethehaus, das Geburtshaus des berühmten deutschen Dichters Johann Wolfgang von Goethe.*



*Eine Schifffahrt auf dem Main macht viel Spaß. Man kann aber auch gut am Fluss spazieren gehen. Im Sommer finden hier viele Feste statt. Jedes Jahr kommen mehrere Millionen Menschen zum Museumsuferfest. Es dauert drei Tage und es gibt ein interessantes Programm mit viel Live-Musik.*

### **EINE PERSON BESCHREIBEN: PERTSONA BATEN DESKRIBAPENA**

Pertsona bat deskribatzeko era asko daude. Edozein delarik ere guk aukeratutako ereduak, komeni da ordena bat jarraitzea.

Lehenengo, aurkezpen orokorra egingo dugu (izena, adina, jaioterria eta horrelakoak). Gero, deskribapenaren garapena:

- Ikusten dena: ezaugarri fisikorik nabarmenenak, janzkera eta osagarriak.
- Ikusten ez dena: izaera, nortasuna, zaletasunak, lorpenak...

Bukatzeko, gure iritzi pertsonala eta pertsona horrek transmititzen dituen sententzioak: konfiantza, beldurra, segurtasuna, lasaitasuna, tristura, misterioa...

Zuek deskribatu behar duzuen pertsonaia, pertsonaia historikoa izanik, ikusten den horretan edo fisikoan zentratu beharrean, pertsona horrek egindako lanetan zentratuko zarete.

### **Adibidez: Dolores Ibarruri *Pasionaria***

Dolores Ibarurri meatzari-familia batean jaio zen. Eskola oso gazte zela utzi eta jostun-lanetan hasi zen. Hogei urterekin ezkondu eta matxinatzen hasi zen. Txiki-txikitatik asko irakurri zuen eta liburu horietan ikasitakoarekin mundu justu baten alde borrokatzea erabaki zuen.

Hogeita hiru urterekin *El minero Vizcaino* liburua idatzi zuen, *Pasionaria* ezizena erabiliz. Ehunka emakume eta gizon bultzatu zituen bizi-baldintza duinak eskatzera eta tribunatik hitzaldiak ematen zituen bakoitzean, begirune handiz tratatu eta begiratzen zioten guztiak.

Alderdi Komunistako kongresukide ere izan zen eta faxismoa Espainian sar zedin eragoztera deitu zituen emakume, gizon zein gazte guztiak.

Konpromiso ideologiko hark etxetik alde egitera behartu zuen Dolores eta ezin izan zuen itzuli 1977. urtera arte. Egun gure eskubideak defendatzen ditugunon aitzindari da.

- Taldeka zuek aukeratutako tokia/pertsona nolakoa den eta toki/pertsona horrek duen historiari buruz dakizuen idatziko duzue.

<b>DONOSTIA/BILBO/MUTRIKU/ZUMAIA/ ORIO/GETARIA</b>	<b>EUSKARAZ</b>	<b>ALEMANEZ</b>
Erabili hiztegia. / <i>Wortschatz benutzen.</i>		
Esan edo idatzi tokia nolakoa den. / <i>Wie ist der Ort schriftlich oder mündlich beschreiben.</i>		
Esan edo idatzi pertsonaia nolakoa den. / <i>Wie ist die Person schriftlich oder mündlich beschreiben.</i>		
Esaldiak sortu / Sätze bauen		
Ideiak ondo ordenatu. / <i>Die Ideen Reihenfolge setzen.</i>		

<b>BIZITZARI LOTUTAKO DATUAK</b>	<b>EGINDAKO LANAK</b>	<b>BESTE DATU AIPAGARRI BATZUK</b>
Elkano; Txurruka; Valenciaga; Txillida; Oteiza; Lucia Lakarra; euskal arrantzaleak Ternuan		

--	--	--

- **Gainbegiratu web orrialde hauek:**

- <https://travellingcarola.com/san-sebastian/>
- [Youtube "What is the Basque Country?" Vaga Brothers](#)
- ["Wonders of the Basque Country" Jeremy Huques](#)
- <https://vimeo.com/367252346>
- <https://tourism.euskadi.eus/en/>
- <https://www.argia.eus/gida/es/qipuzkoa.htm>
- <https://www.basquecountry.eus/home/>
- <https://www.getyourguide.com/>
- <https://www.lonelyplanet.com/>
- <https://www.freetour.com/destination>
- <https://theculturetrip.com/europe/spain/articles/10-things-to-know-before-visiting-bilbao/>
- <https://theculturetrip.com/europe/spain/articles/10-things-to-know-before-visiting-the-basque-country/>

- **Nola egin ahozko aurkezpenak:**

- [https://www.canva.com/design/DAFOudyS0pY/krYPIOEQyAzdDnHXKBC-tw/edit?utm\\_content=DAFOudyS0pY&utm\\_campaign=designshare&utm\\_medium=link2&utm\\_source=sharebutton](https://www.canva.com/design/DAFOudyS0pY/krYPIOEQyAzdDnHXKBC-tw/edit?utm_content=DAFOudyS0pY&utm_campaign=designshare&utm_medium=link2&utm_source=sharebutton)

## **IKASITAKOARI BURUZKO GOGOETA LABURRA. TESTUEI BURUZKO HAUSNARKETA**

Talde, erantzun galdera hauei:

- Zer berezitasun dituzte deskripzio-testuek? Nolakoak dira azalpenak? Nolakoak dira irudiak? Egokiak dira? Zergatik? Zerbait aldatuko zenukete? Zerbait gehituko zenuke? Zer ikasi behar dugu aurkezpen digitala egiteko?
- Nolako aurkezpena egin dezakegu? Noren aurrean aurkezteko?
- Ondorioak atera. Aukeratu eta baztertu bilatutako informazioa, eta hasi aurkezpena prestatzen.

Taldea, erabaki zer informazio-mota bilatu behar duzuen (ikasleei txantiloia banatu). Informazioa eta argazkiak bilatu behar dituzue:

### VOSCHLÄGE / IRADOKIZUNAK

<i>Essen:</i> bixigua parrillan, pintxoak, sagardotegiko menua, taloak, marmitakoa...
<i>Musik Und Tanzen:</i> euskal taldeak, txalaparta, bertsolaritza...
<i>Feiertage:</i> Santo Tomas, Danborrada, Debarren eguna ...

<i>Sport</i> : Zesta-punta, pilota, harri-jasotzea, txingak, zaku-karrerak, oskol-bilketa...
<i>Outdoor Aktivitäten und Natur Sportarten</i> (kanpoko ekintzak eta kirolak): wandern, klettern, surfen, schwimmen, kanoeing, Stand-up Paddle...
<i>Berühmte Leute in Baskenland</i> : Elkano, Valenciaga, Lucia Lakarra, Txillida, Oteiza, Arrantzaleak Ternuan...
Euskal Herria: <i>Naturdenkmal</i> (toki ezagunak) Haizearen Orrazia, Mollarri, Gaztelugatxe, Flyscharen Geoparkea...

### C. AZKEN FASEA: EKOIZPENA ALEMANEZ

Gure herrialdeari buruzko aurkezpena prestatuko duzue taldeka, astean zehar bisitatuko ditugun lekuak hobeto ezagutzeko lagungarriak izan daitezkeen ideia eta gomendioekin. Aurkezpena baliabide digitalak erabiliz ekoiztuko duzue, gero gela aurrean ahoz aurkezteko. Alemanek, ondoren, zuen informazioa erabiliko dute eta euren egonaldian ateratako argazki, deskribapen, komentario eta ondorioekin bidaia-liburuxka bat osatuko dute.

- Testuak digitalizatu eta aurkezpena entseatu. Kontuan izan irizpide batzuk:

	JA/BAI	NEIN/EZ
<i>Hast du dich selbst vorgestellt?</i> Zure burua aurkeztu duzu?		
<i>Hast du Augenverbindung gehabt?</i> Begiratu diezu entzuleei?		
<i>Ist deine Vorstellung verstehlich?</i> Ulergarria izan da zure aurkezpena?		
<i>Hast du ziemlich flüssig gesprochen?</i> Jariotasunez hitz egin duzu?		
<i>War dein Wortschatz richtig?</i> Hiztegi egokia erabili duzu?		
<i>Hast du Konnektoren benutzt?</i> Lokailuak erabili dituzu?		
<i>War deine Aussprache und Intonation richtig?</i> Ahoskera eta intonazioa egokiak izan dira?		
<i>Did you sound natural and you did it without reading?</i> Natural egin duzu, irakurri gabe?		
<i>Was the information presented in an attractive way?</i> Modu erakargarrian aurkeztu duzu?		
<i>Were there enough pictures and not too much text?</i> Testu gehiegi zegoen, irudiak nahikoak?		

- Errubrikak erabiliz, ikasleek egindako lanari buruzko gogoeta egingo dute.
- Aurkezpen digitalerako jarraibideak (*Anweisungen für PowerPoint Slideshow*):

<b>PowerPoint Slideshow</b> Diapositibak	<b>Sehr gut</b> Oso ondo	<b>Mittelmässig</b> Justu	<b>Braucht verbessert werden</b> Hobetu beharra
---	-----------------------------	------------------------------	--

<i>Es hat Vorstellungskraft und Kreativität.</i> Indarra eta sorkuntza du.			
<i>Es ist klar und gut organisiert.</i> Argia eta ondo antolatua.			
<i>Es hat nicht zu viel Text.</i> Testu gutxiegi du.			

- Ahozko aurkezpenarako jarraibideak (*Anweisungen für die mündliche presentation*):

	Oso ongi	Justu	Hobetu beharra
<i>Nicht verbale Fähigkeiten / Hitzik gabeko komunikazioa:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Blickkontakt / begi-kontaktua</i></li> <li>• <i>Körpersprache / gorputz-hizkuntza</i></li> <li>• <i>Begeisterung / Bewusstweien des Publikums. Entzuleen feedbacka</i></li> </ul>			
<i>Inhalt und und Organisation von Ideen / Edukia eta ideien antolaketa:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Einleitung/Sarrera</i></li> <li>• <i>Sequenzbildung/Sekuentziazioa</i></li> <li>• <i>Wichtige Information / Informazio garrantzitsua</i></li> <li>• <i>Abschluss / Bukaera</i></li> </ul>			
<i>Correction / Zuzenketa:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Grammatik/Gramatika</i></li> <li>• <i>Wortschatz/Hiztegia</i></li> <li>• <i>Aussprache/Ahoskera</i></li> <li>• <i>Intonation/Intonazioa</i></li> <li>• <i>Fliessendes Sprechen/Jarriotasuna</i></li> </ul>			

- Talde-lanerako irizpideak:

<b>Ikasleak:</b>	<b>Beti</b>	<b>Sarri</b>	<b>Noizbehinka</b>
Egiten du egin beharrekoa.			
Errespetatzen ditu datak.			
Jarrera baikorra azaltzen du.			
Taldean parte hartzen du.			

Besteekiko begirunez jokutzen du.			
-----------------------------------	--	--	--

- Bukaerako autoebaluazioa ikasleentzat:

<i>Was am besten über dieser Arbeit mir gefallen ist...</i> Lan honetan gehien gustatu zaidana...	
<i>Am schweresten war für mich...</i> Zailena egin zaidana...	
<i>Was ich von dieses roject gelernt habe ist...</i> Proiektu honetatik ikasi dudana da...	
<i>Was ich mehr über... lernen möchte war...</i> Gehiago ikasi / sakondu nahi nukeena da...	
<i>Ich habe meine Arbeitsteil für den Team pünktlich fertiggestellt.</i> <i>Kommentäre:</i> Taldean nuen betebeharra/ardura bete dut. <i>Komentarioak:</i>	<i>Ja? Nein? / Bai? Ez?</i>
<i>Ich habe mit den Team mitgearbeitet.</i> <i>Kommentäre:</i> Gainontzeko taldekideekin arduraz aritu naiz lanean. <i>Komentarioak:</i>	<i>Ja? Nein? / Bai? Ez?</i>
<i>Ich habe die Ideen von meinen Mitschülern (des Teams) zugehört.</i> <i>Kommentäre:</i> Nire taldekidekoen ideiak entzun ditut. <i>Komentarioa:</i>	<i>Ja? Nein? / Bai? Ez?</i>
<i>Ich habe meine Ideen mit meiner Gruppe geteilt.</i> <i>Kommentäre:</i> Nire ideiak partekatu ditut taldekideekin. <i>Komentarioak:</i>	<i>Ja? Nein? / Bai? Ez?</i>
<i>Ich habe jederzeit die Ideen der Anderen geschätzt.</i> <i>Kommentäre:</i> Une oro besteen ideiak balioetsi ditut. <i>Komentarioak:</i>	<i>Ja? Nein? / Bai? Ez?</i>

- *Kontolliste / Kontrol-zerrenda*

1. Ist das Schreiben richtig für die Beschreibung eines Ortes? Idazkia tokiaren deskribapenera egokitzen da?	Ja?	Nein?
2. Ist das Schreiben logisch und geordnet? Idatzia logikoa eta ordenatua al da?	Ja?	Nein?
3. Kann man das Schreiben gut verstehen? Idatzitakoa erraz ulertzen da?	Ja?	Nein?
4. Habt ihr wichtige Informationen beigefügt? Funtsezko informazioa aipatu da?	Ja?	Nein?
5. Ist die Grammatik, Rechtschreibung und Satzzeichen richtig? Zuzen erabili da gramatika, ortografia eta puntuazioa?	Ja?	Nein?

#### GURE IKASLEEK EGIN BEHARREKOA:

Lauko taldeak egin, gero haiek egindako lana Alemaniako beste laukote bati azaltzeko. Horretarako, taldekide bakoitzari trukeko egun zehatz bat esleituko zaio, eta lanean hasiko dira:

- Nola irits gaitezke bertara. Garraio mota, joan.ectorrien ordua eta kostua zehaztu.
- Tokiaren deskribapena egin, aurretik ikasitakoa praktikara eramanez. Dantza edo kirol baten deskribapena ere txerta daiteke.
- Herri edo toki horretan nabarmendu daitekeen pertsonaia edo bitxikeria aipagarririk balego, aipatu.
- Donostia eta Bilboren kasuan, zirkuituaren maparen zirriborroa egin daiteke.
- Ikasle gonbidatuen aurrean, aurkeztu egindako lana.
- Eguneko atsotitza azaldu eta ikasi:
  - Akerrak adarrak okerrak ditu.
  - Bitxilore lore bitxi, patxi pitxi bitxilore, batzen biltzen zortzi lore.
  - Euskara bihotzean, baina erdara ezpainean.
  - Eguzkia eta euria, Erromako zubia.
  - A ze pare, karakola eta barea.
  - Gustuko tokian aldaparik ez.
  - Ez dauka horretxek mingainean herdoilik.
  - Bat eman eta bi hartu.
- Egun guztiak berdina izan ez daitezen, egunen batean euria egingo balu, deskribapen digitalak egon ordez, altzorraren bila jolasa antola daiteke edo *scape room* bat prestatu institutuan.

#### ALEMANEN ARTEAN:

- Lauko taldeetan, ahozko aurkezpenak adi entzun eta galderarik balego, galdetu. Bisitatu dituzten tokien argazkiak egin, deskribapenetan entzundakoarekin lotura izan behar dute (naturako elementuren bat, eraikinen

- bat, bisitatutako tokiko txoko edo pertsonaiaren bat ...)
- Eguneko atsotitza txertatu.
  - Argazki horiekin guztiekin gero turismo-liburuxka osatu.

## BIBLIOGRAFIA

- Wikipediako orriak
- ASKOREN ARTEAN: *Errebelde 50 bider*, 2019, Erein.
- <https://www.youtube.com/watch?v=GjqaD8CVpt8>
- <https://www.youtube.com/watch?v=MEYNK1oPOPU>
- <https://eve.eus/Actuaciones/Marina.aspx>
- <https://turismoa.euskadi.eus/eu/kultur-ondarea/mollarriko-zamalekua-zarautz/aa30-12375/eu/>
- <https://turismoa.euskadi.eus/eu/kultur-ondarea/>
- <https://travellingcarola.com/san-sebastian/>
- [Youtube "What is the Basque Country?" Vaqa Brothers](#)
- ["Wonders of the Basque Country" Jeremy Hugues](#)
- <https://vimeo.com/367252346>
- <https://tourism.euskadi.eus/en/>
- <https://www.arqia.eus/qida/es/qipuzkoa.htm>
- <https://www.basquecountry.eus/home/>
- <https://www.getyourguide.com/> <https://www.lonelyplanet.com/>
- <https://www.freetour.com/destination>
- <https://theculturetrip.com/europe/spain/articles/10-things-to-know-before-visiting-bilbao/>
- <https://theculturetrip.com/europe/spain/articles/10-things-to-know-before-visiting-the-basque-country/>